



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko martxoaren 18a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, 2001-2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([5. or.](#)).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2003ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (2. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (3. or.).

IV.2. 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (3. or.).

IV.3. Legezketasuna (3. or.).

IV.4. 2003ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak. (4. or.).

IV.6. Gomendioen jarraipena (4. or.).

IV.7. Ondorio orokorra (4. or.).

Eranskina.- 2003ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Berriozarko Udalak 7.577 biztanle ditu eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2003ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2003an
Udala	8.061.744	6.800.697	62

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamenduak eta eskualdeko hiri garraiokoak.

Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Horren bidez emandako zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, droga-

menpekotasun-programa eta abegi eta gizarte-orientazioa.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu

egin ditugu bai Berriozarko Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren 2003ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateari aplikatzekoa den gainontzeko araudia. Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Berriozarko Udalaren 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren finantza-egoera 2003ko abenduaren 31n.

e) Berriozarko Udalaren finantzen egoera-orriaren informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen onargarritasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2002ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programa-rekin bat, Berriozarko Udalaren (aurrerantzean, "udala") finantzen egoera-orriaren fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta 2003ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, bai eta finantzen egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere, 2003ko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

Landa-azterketa 2004ko urrian hasi eta urrian bukatu da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lana burutzeko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, 2003ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkion Berriozarko Udalaren finantza-egoeraren orriak aztertu ditugu, zeinak udalaren ardurapean egin baitira.

Berrikuspina egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoria-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

IV.1. 2003KO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2003ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2003ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2003KO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENEA

Erantsi dugun 2003ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren finantza- eta ondare-egoera.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2003KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontua 6.793.630 eurokoa da, eta behin betikoa, 8.730.970 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 92koa da, eta dirusarrerena, ehuneko 78koa.

2003ko ekitaldian behera egin du dirusarreraren betetzearen ehunekoak, eta gora, berriz, gastuen betetzearenak, aurreko ekitaldiarekin alderaturik. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 105ekoa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 69koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 22 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 65 transferentzietatik datoz.

Ekitaldiaren amaieran 1.261.047 euroko defizita izan da, eta aurrekontuko emaitza doituia 137.534 milioi euroko superabita izan da, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina (1.643.386 euro) oinarri hartuta betebeharrak finantzatu baitira, eta finantzaketa-desbiderapen positiboak (244.805 euro) izan baitira. 2003ko abenduaren 31n, zorra 1.152.711 eurokoa zen, eta ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk sinatu.

Berriozarko Udalak 2003ko abenduaren 31n duten finantza-egoerak honako ezaugarriak ditu: ehuneko 5eko aurrezpen garbia eta 24.170 euroko diruzaintza gerakina, baina aipatu beharra dago gastu orokorretarako gerakina negatiboa dela, 48.367 eurokoa.

Ekitaldi honetan jaitsi egin dira diruzaintzako gerakina eta aurrekontuko emaitza doituia, 2002an hasitako lanen amaiera eta 2003an eginiko obra berriak direla eta, hala nola, kiroldegian, musika eskolan eta belar artifizialeko futbol zelaian egini-koak.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den

informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2002ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla.

IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio orokor gisa, esan genezake udalak egokiro kudeatzen dituela bere aurrekontuak, ekonomia eta finantzak.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da finantza egoerak defiziterako joera agertzen duela, behar bada hirigintza aprobetxamenduetatik heldu diren baliabide faltaren ondorioz.

Egoera horrek nahitaez dakar berekin bideragarritasun plan baten beharra, zeinean adierazi beharko baitira eman beharreko zerbitzuak, haien kostua, kostu horretatik zenbat jasanaraziko zaion, kasua bada, erabiltzaileari, eta udalak eskueran dituen finantzaketa-iturriak. Plan hori egitea nahitaezkoa da finantza-oreka berriro lortzera bideraturiko neurriak hartu ahal izateko.

Horrez gain, gure gomendioak hauexek dira:

- *Aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa onestea legezko epeetan.*

- *Ibilgetu-aseguruen estaldura igotzea, halako moldez non guztiz estalita egotera iritsiko baita.*

Auditor Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2004ko abenduaren 22an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, 2001-2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren gastuei buruz egindako fiskalizazio txostena, 2001-2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren gastuei buruzko fiskalizazio txostena, 2001-2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (5. or.).
 - II.1. Eskaera (5. or.).
 - II.2. Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren aurrekari administratiboa (5. or.).
 - II. Helburua, norainokoa eta mugak (6. or.).
 - III. Ondorioa (7. or.).
 - IV. Inbertsio gastuak (7. or.).
 - V. Langile gastuak (9. or.).
 - VI. Gastu arruntak (10. or.).
 - VII. Gobernuordezkartzaren aurrekontu kontusailen egotzi gabeko beste gastu arrunt batzuk (11. or.).
- Eranskina: Ordezkartzaren aurrekontu kontusailen exekuzioa 2001etik 2004ko apirilera arte (12. or.).

I. SARRERA

I.1. ESKAERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2004ko apirilaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen eskatzea Comptos Ganberari auditoria bat egin dezan Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkartzari buruz, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak hala eskatuta, ordezkartzaren hori jartzeak eta haren jardunak, sortu zenetik hona, ekarri dituzten gastuen fiskalizazioa jasoko duena.

Parlamentuak eginiko eskari hori betetzeko eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen

abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2004ko jarduketa programan arestian deskribaturiko eskariaren xedeari buruzko fiskalizazio txosten bat egitea sartu da.

I.2. NAFARROAK MADRILEN DUEN ORDEZKARTZA. AURREKARI ADMINISTRATIBOAK

Nafarroako Gobernuak Madrilen duen Ordezkartzaren (aurrekartzaren, Ordezkartzaren) 2001eko urtarrilaren 15eko 10/2001 Foru Dekretuak sortu zuen; artikulatu bakarrak Ricardo de León jauna izendatzen du Nafarroako Gobernuaren ordezkari Madrilen, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta haren esku uzten du, dekretuaren atarikoak dioenez, harreman finkoak izatea Estatuko administrazioarekin eta Espainiako hiriburuan egoitza duten beste erakunde batzuekin –naziionalak zein nazionartekoak–, Foru Administrazioaren eta entitate haien arteko jarduketak koordinatzea eta estatuko erakundeetan tramitatu eta Nafarroako Foru Komunitatean eragina duten administrazio espedienteen jarraipena egitea, batez ere izaera ekonomiko eta finantzarioa dutenena.

Hasiera hartan ez zen zehaztu zein zen ordezkariaren maila, zer harreman hierarkikoa zuen departamentu jakin batekin, ez eta eginkizunak betetzeko atxiki beharreko aurrekontu zuzkidura ere.

Handik gutxira, Gobernuak 2001eko otsailaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, 2001eko aurrekontuan aldaketa bat egin zen ordezkartzaren sortu berria diruz hornitzeko, behin-behineko langileen eta gizarte segurantzaren kontusailletako kreditua gehituz eta gastu arruntetarako eta inbertsioetarako kontusail berriak sortuz, guztia “Ekonomia zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak” aurrekontuko proiektuaren barrenean. Kreditu berriak 234.352 euro egin zuen. Aurrekontua luzatu egin zenez, kontusailak bere horretan mantendu ziren 2002 eta 2003ko ekitaldietan.

2001eko eta 2002ko abenduko plantilla organikoetan eta lanpostuen zerrendetan, alegia, gaur arte argitara emandako azkenetan, ordezkariaren araubide juridikoa da “izendapen libreko eta behin-behineko zuzendaritzako kargua (apirilaren 15eko 73/2002 Foru Dekretua eta 2003ko ekainaren 14ko 72/2003 Foru Dekretua).

Lehendakartzaren eta Ekonomia kontseilariaren Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean 2001eko maiatzaren 9an batera eginiko age-

rraldian, are gehiago zehaztu zen figura berria. Ordezkaritzaren maila tekniko eta politikoari dagokienez, Ekonomia kontseilariak adierazi zuen ordezkariaren maila zuzendari nagusiarena zela. Departamentu mendekotasunari dagokionez, Lehendakaritza kontseilaria Ekonomia eta Ogasun Departamentuan sartzearen aldekoa da, ikusirik beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren kudeaketak gobernu zentralaren aurrean alde zuzenetik egin beharreko kudeaketekin lotzea, bereziki Europako funtsen tramitazioan. Ekonomia kontseilariak aipatzen du Madrileko Ordezkaritza, Bruselakoaren gisa, gobernuaren eginkizunak betetzen dituen organo bat dela, gobernuak eskumena duelako Foru Komunitatearen ordezkariak izendatzeko edozein organismo edo erakunde publiko nahiz pribatutan, Gobernuari buruzko foru legearen 8. artikuluari jarraiki. Ordezkaritzaren eginkizuneko xedea da, batetik, beste administrazio eta erakunde batzuekiko lankidetzak eta koordinazioa areagotu beharra, eta bestetik eragile aktibo eta iraunkor gisa harremanak ezartzea merkataritzako nahiz era guztietako foroetan, eta lankidetzarako aukeren inguruko informazioa bildu.

Uztailaren 28ko 270/2003 Foru Dekretuaren bidez Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoan Nafarroako Gobernuaren Madrileko Ordezkaritza-zuzendaritza nagusi berria sortu zen, antolaketa honekin: "Antolaketa, Harreman Administratibo eta Instituzionalen eta Ekonomia eta Merkataritza Sustapenaren Zerbitzua" eta "Gizarte, Kultur eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua". Lan hau egiteko garaian zerbitzu horiek ez zuten langilerik.

Aurrekoarekin bat, uztailaren 28an bertan, 346 eta 347/2003 foru dekretuen bidez, titularrak Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkari kargutik kendu eta Nafarroako Gobernuak Madrilen duen Ordezkaritzako zuzendari nagusi izendatu zuten. Aipatutako azken foru dekretuaren arabera, ordezkariaren eginkizunak dira, besteak beste, gobernuaren ordezkari instituzionala betetzea eta laguntza ematea Nafarroako Gobernuari Madrilen egoitza duten erakunde publiko nahiz pribatuen aurrean.

Abuztuaren 6ko 240/2003 Foru Aginduaren bidez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak hizpide dugun zuzendaritza nagusiari eskuordetu zizkion bere eskumenak, salbu eta eskuorde ezinak direnak, eta espresuki kontratu eskumenak; zuzendaritza nagusiari atxikitako langileen burutza, eta halaber espedienteak ebaztea eta ordainketa betebeharrak baimentzea, xedatzea eta onartzea.

2004ko ekitaldiko aurrekontu orokorretan 140 programa dago sarturik, "Nafarroako Gobernuaren Madrileko ordezkariak," gobernuaren ordezkariak 270/1003 Foru Dekretuan ezarritako egitura eta eginkizun berrietara egokitzeko prozesua finantzatzeko. Dekretu horretan jasorik daude langileen gastuetarako aurrekontu kontusailak (93.412 euro) eta gastu arruntak (100.800 euro).

Programak nabarmentzen du 2003an ordezkariak Nafarroako Kutzaren bulegoetan duela egoitza behin-behinekoz, horrek inolako gasturik ekartzen ez duela alokairuari eta gainerako hornigaietarako dagokienez. 2004an aurreikusirik zegoen egoitza berrira joatea, eta horregatik iragartzen da jarduerak eta helburuak gehitu egingen direla, azken hauek bi atal nagusitan banaturik: Nafarroa Madrilen ezagutzen laguntzea eta bulegoekin eta aholkularitza enprekin lan egitea Nafarroako enpresa eta merkataritza jarduerak ezartzeko; aldi berean, bideak irekitzea Nafarroak presentzia izan dezan atzerrian.

Programa betetzeko behar diren giza baliabideei dagokienez, egitura berriarekin bat honakoak aipatzen dira: zuzendari nagusia, zerbitzuko bi zuzendari, hiru administrari-laguntzaile eta bi bekadun turismo eta kultur baliabideetarako informazio unitaterako. Lan hau egiteko garaian betetzeko zuzendari nagusiaren eta kabineteko laguntzailearen lanpostuak.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.

Parlamentuko eskaerarekin bat, gure lanaren xedea izan da eratzea Nafarroako Gobernuaren kontabilitate sistemari onartzen diren betebeharren egoera orri bat, ordezkariaren ezarpen eta jardunarekin loturik daudenena, eta horien euskarri dokumentala eta tramitazioa egiaztatzea, iritzi bat emateko jasotako transakzioen erregulartasunari buruz, kontabilitatekoa nola lege aldetikoa.

Lana luzatu da ordezkariak sortu zenetik –2001eko urtarrila– 2004ko apirilaren 30era bitarte –Parlamentuaren eskaera egin zen datatik hurbil– baina horrek ez du esan nahi aztertu gabe gelditu direnik aurrerago gure azterketak eragin litzakeen gertaera garrantzitsuak.

Ordezkaritzari emandako aurrekontu zuzkiduraren gastu kontusailen idazpen guztien egiaztatzen materiala egin dugu (txostenaren eranskina). Langile gastuak Ekonomia Zuzendaritza Nagusian sarturiko aurrekontuetako I. kapituluko kontusailen kargura finantzatzen dira; kontusail horien ezaugarria da nominen sistema laguntzailetatik egindako hileko idazpen orokorrak izatea, eta beraz sistema laguntzaile horretatik bereizitako atalekin lan egin

dugu, Lehendakaritza Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak horien egiaztapena egin ondotik.

Araudi indardunak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuaren esku uzten ditu ondasunak kostu bidez eskuratu, horiek atxiki eta Foru Komunitatearen higiezinaren ondarea hantitzeko eginkizunak; kontuan hartu genituen, beraz, zerbitzu horren aurrekontu kontusailak ere, bereziki "Instalazio berriko eraikinak eta obrak". Ordezkaritzaren egoitza erosi, egokitu eta ekipamenduaz hornitzeko espedienteak Ondareak tramitatu ditu, eta hantxe eman dizkigute. VII. atalean zehazten denez, horrez gain beste kontusail batzuk ere aztertu ditugu, izen orokorragoa dutenak, zerbitzu horretakoak horiek ere.

Azken batean, ordezkaritzaren gastuen finantzazioa zein kontusailen kargura egin den –zertuz jokatura eta horien kode organiko, funtzional eta proiektukoari erreparatuta–, horien edukia egiaztatu dugu. Horrek ez du baztertzeko, agian, gastu txikiak ez direla antzeman, izen orokorreko beste kontusail batzuei egotzi zaizkielako. Gastu guztiak kontusail egokiei egotea Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren erantzukizuna da.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin da lana.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileei, eta batez ere Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

III. ONDORIOA

Ataletan aipatzen diren kontusailak azterturik eta ordezkaritzaren inguruko idazpenen bateratzeen ondorioz, honako hau da gastuen egoera-orria 2001eko urtarriletik 2004ko apirilera bitarte.

	Euroak
Egoitza erostea	871.468
Egoitza egokitzeko lanak	298.459
Egoitzaren altzariak eta ekipamendua	66.677
Inbertsioak, gutzira	1.236.604
Langileak	299.438
Ordezkaritzaren aurrekontuko gastu arruntak	61.239
Beste gastu arrunt batzuk	13.624
Gastu arruntak, gutzira	373.941
GUZTIRA	1.610.545

Ordezkaritza 2001eko urtarrilean sortu zuen Nafarroako Gobernuak, legez dituen eskumenak, Nafarroako Foru Komunitateko gobernua eta administrazioaren araubide juridikoari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 8.c) eta 50.b) artikuluek emanak, erabiliz.

Ordezkaritzaren Madrileko egoitza erostea, hura egokitzeko proiektua, lanak eta laguntza teknikoa eta ekipamendua Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak kudeatu ditu. Tramitaturiko hamar espedienteak azterturik atera dugun ondorioa da erabilitako prozedurak legearen arabera direla, Nafarroako Foru Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearekin eta Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearekin bat.

2001eko aurrekontuan aurrekontuko aldaketen bidez eman zitzaion finantza zuzkidura, eta kreditu horiek 2003ko ekitaldira bitarte mantendu ziren aurrekontuaren luzapenaren ondorioz. 2004ko aurrekontuetan ordezkaritzaren beraren aurrekontu proiektua ezarri zen.

Langileen gastuetan jasorik daude ordezkaritza eta kabineteko laguntzaile baten lansariak, Nafarroako Gobernuak zuzendari nagusiendako eta kabineteko langileendako lansariak ezarri zituzten erabaketan eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritakoan aurreikusitako zenbateko berdinekin.

Aurrekontuetako ondasun arruntak eta zerbitzuen kontusailen jasorik daude soilik izaera horretako gastuak, kutxa finkoko aurrerakinen prozedura erabiliz tramitatuak, abenduaren 27ko 385/1993 Foru Dekretuan, ekainaren 2ko 145/1997 Foru Dekretuan eta horien arau garapenean arautu bezala.

Gastuak kasuan kasuko fakturek justifikaturik daude. Ordainketa sistema, sobran dauden funtsen birjartzea, gastuen justifikazioa eta ezarritako kutxa finkoko aurrerakinaren zenbatekoa kontu korrontean egin beharreko libramendua arlo horren gaineko araudiarekin bat bete dira.

Alegia, aipatutako gastuak justifikaturik daude eta kasu bakoitzean aplikatzeko den araudiak eskatzen dituen prozedurekin bat tramitatu dira.

IV. INBERTSIO GASTUAK

Ordezkaritza 2001ean sortu eta berehala eman zitzaizkion inbertsio kontusailak, aurrekontuari dagokionez "Ekonomia Zuzendaritza eta Zerbitzu orokorrak" izeneko kode organikoan sartutakoek, 6.009 euroko gastua baizik ez dute jasotzen,

2001ean erositako ordenagailu batena. Egoitza erosi, egokitu eta ekipamenduaz hornitzeari dagozkion gainerako gastuak, berriz, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak" kontusailari egotzi zaizkio eta horren kudeaketa eta erantzukizuna Ondare Zerbitzuaren eskumenekoak dira.

Kontusail horren azterketak gastuen taula hau egiteko aukera eman digu:

Inbertsioak	Aitortua/ordaindua
Madrileko higiezina (Goya kalea 48,1.) erostea	871.468
Nafarroako Gobernuaren Madrileko Ordezkaritzaren egoitzarako proiektua egitea	13.603
Nafarroako Gobernuaren Madrileko egoitza egokitzeko laguntza teknikoa	11.870
Nafarroako Gobernuaren Madrileko Ordezkaritzaren egoitzako lanak	266.165
Kableatzea Goya kaleko 48 zenbakian	6.821
Ordezkaritzako altzariak	22.891
Ordezkaritzako altzariak	21.207
Ordezkaritzako tapizak	2.546
Zenbait hornigai	5.451
Sukaldeko altzariak paratzea	8.573
Ondareko kontusailletako inbertsioak, guztira	1.230.594
Ekonomia Zuzendaritzako eta zerbitzu orokorretako inbertsioak guztira	6.009
Guztira	1.236.604

IV.1. MADRILEKO HIGIEZINAREN EROSKETA

Gobernuko ordezkaria izendatu zutenean Ondare Zerbitzua lanean hasi zen lokal adierazgarri bat lortzeko Salamanca auzoan, bulegoetarako ere erabiltzeko modukoa. Gutxienez hamar enpresa ezpezializaturen eskaintzak kontsultatu ziren, eta hogeita hamar lokal baino gehiagotara joan bisitan, baina hasiera egin nahi zen errentamendurako aukerek huts egin zuten. Erostearen aldeko hautua egin zen orduan; hainbat aukera zeuden, eta saiakera batzuk egin ondotik Goya kaleko lokala erosi zen 871.467 eurotan.

Bulegoetako pisu bat da, hogeigarren hamarkadako eraikin klasiko batean kokatua, kanpoaldetik zaharberritua, Salamanca auzoan, eta 177 m²-ko azalera duena.

Espedientea osatzen duten dokumentu guztiak azterturik ateratzen den ondorioa da erosketak Nafarroako Foru Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearekin bat gauzatu dela. Foru lege hori ekainaren 19ko 219/2000 Foru Dekretuak gaurkotu zuen eskumenen mugei dagokienez. Higiezinaren eskriturak eginik daude.

IV.2. NAFARROAKO GOBERNUAREN MADRILEKO EGOITZA EGOKITZEKO PROIEKTUA, ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA LANAK.

"Giltza eskura" motako kontratu bat tramitatzearen aldeko hautua egin zen, justifikaturik eta arrazoiturik; kontratu horren arabera, adjudikazio hartzailea beharturik egonen da proiektua erredaktatu, barneko erreformako lanak egin eta obrak egin eta jarduera abian jartzeko behar diren tramitazio guztiak kudeatzera.

Beraz, kontratu misto bat da (KFLaren 6.3 artikulua), lehiaketa irekiaren bidez adjudikatua. Bi aldaketa izan ditu, 3.111 eurokoa eta 4.800 eurokoa hurrenez hurren, bata hasiera batean aurreikusitako segurtasun ekipoak jartzeko, Foruzaingoaren txosten teknikoak hala proposatu zuelako, eta bestea Madrileko Udalaren eskakizunei erantzuteko, obra lizentzia emate aldera. 2004ko otsailaren 16an harrera akta sinatu zen.

Espedientea osatua da eta Kontratuei buruzko foru legearekin bat tramitatu da.

Betetako proiektuak erabilera administratiboa baizik ez duen lokal bat definitzen du, lau bulego, bilera gela bat, bisitetarako beste gela bat eta kontrolerako beste bat egokituz, bainugelez eta sukaldeprestatzekuz gain.

IV.3. EGOITZA ERABILTZEKO LOKALETARAKO EGOKITZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK

Kontratu hori publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu zen, haren zenbatekoa zela eta, legearekin bat.

Hamar enpresari kontsultatu eta balorazio tekniko egokia egin ondotik, 11.870 eurotan adjudikatu zen. Espedienteak kontratuen gaineko araudia- ren eskakizunak betetzen ditu.

IV.4. ORDEZKARITZAREN EGOITZA KABLEATZEA

Kontratua prestatzeko jarduketak bat datoz kontratazioaren gaineko araudiaren eskakizunekin. Adjudikazioa gauzatzeko Opatel, S.A.ri gomendio egiten zaio, sozietate publikoen bitartez obrak, zerbitzuak, hornidurak eta gainerako jarduerak zuzenean betetzea arautzen duen ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretuarekin bat.

IV.5. ORDEZKARITZAKO ALTZARIAK

Foru administrazioa atxikirik dago "estatuko Erosketen Zuzendariordetzaren ondasun eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuaren sistema" ize-nekoari, eta beraz, kudeaketa Ondare Zerbitzutik

eginik, edozein bulegok erosi ahal ditu artikuluko Estatuak enpresa adjudikazio hartzaileekin izenpeturiko kontratuen arabera indarra duten baldintza eta prezioetan. Horrela ziurtatzen zaio administrazio erosleari kontratistak hautatzeko publizitatea eta lehia erabili dela, eta halaber betebeharrak fiskal eta sozialak beteak dituztela, eta horri esker hautapen prozesu berez luzea arindu egiten da.

Horixe izan da ordezkartzako altzariak erosteko erabilitako sistema. Aztertutako espedienteetan honako dokumentu hauek daude: eskaera zentralizatua, kreditu erreserba edo egindako gastu baimena, Estatuko Ondare Zuzendaritza Nagusiaren adostasun agiria eta kontabilitateko agiriak, erosteketa sistema honetarako behar direnak.

Kontabilizatutako bi espedienteen bitartez, bi hornitzaile ezberdinei erosi zaizkie honakoak: bulegoko hiru mahai, tiradera-altzariekin eta beselako osagarriekin, hiru sofa, sei besaulki, bulegoko hemeretzi aulki, egongelako mahaia eta oinalde bat.

IV.6. TAPIZAK EROSTEA.

Aurreko atalean deskribaturiko sistema horrekin berarekin erosi ziren bost tapiz, eta espedien-

tean ageri dira ezarritako prozeduraren arabera beharrezkoak diren agiriak.

IV.7. ZENBAIT HORNIGAI

Betebeharrak aitortuetatik lehena, 5.451 eurokoa, zenbait etxe tresna elektriko erosteari dagokio. Hornigaiaren zenbatekoa ikusirik, kontratuei buruzko foru legeak eskatzen duen tramitazio bakarra faktura hutsa da, 2003ko azaroko data duena.

8.572 euroko gastua granitozko sukalde-gainekoa erosteari eta lehen aipatutako elektrika tresnak jartzeari dagokio.

V. LANGILE GASTUAK

Aزتutako epean, ordezkartzak izan dituen langile bakarrak ordezkaria eta kabineteko laguntzaile bat izan dira, hau ere izendapen librekoa eta bi pertsonak bete dutena, bata bestearen atzetik.

Nominen sistema informatikoan erregistraturiko ordainsari kontzeptuen bateratzearen arabera, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak egiaztaturik, hauxe izan da lansari garbierak ekarritako gastua.

	Datak		2001	2002	2003	2004 *	Guztira
Ordezkarria	2001-02-01	2004-04-30	55.766,33	63.974,06	67.822,14	20.748,14	208.310,67
Ordezkaritzako laguntzailea	2001-09-03	2001-10-11	2.317,84				2.317,84
Ordezkaritzako laguntzailea	2001-03-20	2002-04-05	13.845,82	5.945,89	114,74		19.906,45
Ordezkaritzako laguntzailea	2002-04-08	2004-04-30		16.216,17	23.379,85	6.954,66	46.550,68
G.Z. (gutxi gorabehera)							22.352
			71.929,99	86.136,12	91.316,73	27.702,80	299.437,64

*2004ko apirilaren 30era arte.

Ordezkarriak jaso duenaren xehetasunak kontuan izanik, hauxe da gure ondorioa:

Nominaren osagai finkoa, haren lansari guztien ehuneko 91,23 egiten duena, bat dator Nafarroako Gobernuak 1984ko apirilaren 26ko Erabakian zuzendari nagusien kasurako finkatutako soldatarekin, aurrekontuei buruzko legeetan urtez urte ezartzen joan den gehikuntza orokorraren arabera gaurkotua, eta titularrari, langileen estatuaren 24.4 artikulua baliatuz funtzionario den aldetik dagozkion gradu eta antzintasuna ere gehituta.

Nominako osagai aldagarria, jasotako guztia-
ren ehuneko 8,7 egiten duena, honelaxe dago banaturik: zerbitzuen kalteordaina (0,7), dietak (5,9) eta kilometrajea (ehuneko 2).

Lansari kontzeptu horiek aurreikusirik daude langileen estatutuan.

Horien lagin bat egiaztatu ondoren, ondorioa da osagaia aldagarri horien baimena eta justifikazioa egokiak direla.

Ez dago gizarte segurantzagatiko gasturik enpresaren kargura, ordezkaria montepioaren sistemari atxikirik baitago.

Kabineteko laguntzaileak jasotzen dituen ordainsariak Nafarroako Gobernuaren 1984ko urriaren 3ko eta 1996ko uztailaren 15eko erabakiek finkatutakoak dira, aurrekontuei buruzko legeetan urtez urte ezartzen joan den gehikuntza orokorraren arabera gaurkotuak.

Horri gehitu behar zaio enpresak ordezkari-
ko kabineteko laguntzailearen gizarte segurantzaren dela-eta ordaindu beharreko kuota, 2003ra arte aurrekontuko proiektuari atxikitako langile guztiei buruzko hileko idazpen bateratuen bidez kontabilizatu dena. Gure kalkuluen arabera zenbatekoa ez da ekitaldi horietan nominak izandako zenbateko gordinaren ehuneko 32, hau da, 22.532 euro, baino handiagoa.

VI. GASTU ARRUNTAK

Ordezkariaren gastu arrunt guztiak, 2004ko ekitaldikoak barne, kutxa finkoko aurrerakinen prozeduraren bidez tramitatu dira. Prozedura hori abenduaren 20ko 385/1993 Foru Dekretuaren

bidez arauturik dago. Aurreko dekretu hori otsailaren 23ko 172/1994 Foru Aginduak garatu eta ekainaren 2ko 145/1997 Foru Dekretuak aldatu zuen.

Kutxa finkoko aurrerakinak justifikatu beharreko funts libratuak dira, ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuen kapituluari dagozkion ordainketei aurre egiteko aldiro egin behar diren edo errepikatzen diren gastuak direla eta, salbu eta garraioaren eta dieten gastuak eta, oro har, zerbitzuen funtzionamendu normalerako txikiagoak diren gastuak.

Hitz gutxitan, funtsen xedapena eta ordainketa txeki izendunaren edo bankuko transferentzia bidez gauzatu behar dira, lehen aipatutako gastuei ez besterik aurre egiteko. Jasotzaileek justifikatu beharko dute jasotako zenbatekoen aplikazioa gastua egin ondoren, eta erabili gabeko funtsak itzuli berehala aurrerakinaren banku kontura, gehenez ere bi hilabetekoa epean funtsen xedapenetik hasita.

Birjarri beharreko funtsak izanzen dira justifikatutako gastuen zenbateko zehatzaren adinakoak, haien aurrekontuko aplikazioa egiteaz batera. Funtsen birjartzea ordainketen prozedura arruntaren bidez egiten da, berezitasun batekin, alegia ordainketa horien jasotzaile direla kutxa finkoko aurrerakinen banku kontuak.

Prozedura aipatutako kontusailetan kontabilizatu-
tako agiri guztietan betetzen da. Hiru hiru hileko-
tarako ziurtatu dugu gastuak justifikatzen dituzten agiriak, hala nola, funtsen xedapena eta erabili gabeko itzulketa, bat datozela zentralizatzen direneko bankuko kontuaren laburpenarekin, eta ez dugu salbuespenik topatu.

Adierazgarria izan daitekeen lagin bat emateko, antzeman dugu xedatutako gastuak, kontabilitateko dokumentuaren euskarriaren arabera, behar bezala justifikaturik daudela fakturen bidez edo gastua egiaztatzen duten agirien bidez. Ez dugu salbuespenik bat ere aurkitu.

Urte horietarako adierazitako kontusailen ekuzioa aztertu ondotik, eta egiaztaturik horien euskarri diren agiriak, kontabilizatutako gastu txiki ugariren izaera anitza denez, honako sailkapen hau egin daiteke:

	2001	2002	2003	2004 *	Guztira
Komunikazioak	134,91	346,89	835,87	288,62	1.606,29
Bulegoko material arrunta	1.205,56	404,1	704,75	282,03	2.596,44
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	589,86	969,97	862,46	428,56	2.850,85
Bestelako material inbentariaezina	1.048,07	80,54	191,23	33,29	1.353,13
Garraioa eta langileen gastuak	11.583,42	17.744,60	18.154,55	3.963,47	51.446,04
Protokolo arretak	0,00	0,00	679,46	0,00	679,46
Identifikatu gabe			706,80		706,80
	14.561,82	19.546,10	22.135,12	4.995,97	61.239,01

*2004ko apirilaren 30era arte.

Komunikazioetan sarturik daude posta, telegrafo eta mezularien gastuak. Bulegoko material arruntetan, berriz, paperak, kautxuzko zigiluak, kopiak eta kontsumigarri informatikoak. Bestelako material inbentariaezinean sartutako gastuak dira errotuluak, artxibadoreak, giltzak, ordenagailuko mahaia, etab.

Garraioaren eta langileen beste gastu batzuetan jasorik daude, gehien bat, ordezkariak taxi eta otorduetan eginiko gastuak, eta bidaia agentzien fakturak, hegazkin txartelenak, bai bidaia nazionalenak bai nazioartekoak. Ordezkariak egindako nazioarteko bidaien gastuetan kontabilizaturik daudenak hauexek dira: Irak (2001eko ekainaren 24tik 29ra; 2002ko maiatzaren 29tik ekainaren 3ra), Santo Domingo (2002ko ekainaren 26tik 29ra); Washington (2002ko ekainaren 10etik 20ra) eta Mosku (2003ko ekainaren 9tik 11ra).

Beste ordezkariak gastu batzuetan sarturik daude Europako herrialde bateko enbaxadorea Iruñera gonbidatzeak, hoteleko lojamendua barne, ekarritako gastua, baina pentsatzekoa da ordezkariaren otorduen faktura asko ere ordezkariak gastuetan dagozkiela.

Azkenik, identifikatu gabeko gastua da 2.560 zenbakiko espedienteari dagokion gastuen justifikazioarena, zeinetan 706,8 euro kontabilizatzen diren eta kontabilitateko artxiboetan ageri ez dena, eta paperen artean galduko zen, nonbait. Hau da onartu beharreko arriskua, ez-materiala, kapitulu honetan egiaztaturiko gastu guztiaren ehuneko 1,34 egiten duelako.

VII. GOBERNUKO ORDEZKARITZAREN AURREKONTU KONTUSAILEI EGOTZI GABEKO BESTE GASTU ARRUNT BATZUK.

Ondare Zerbitzuko aurrekontu programetan txertaturik dauden eta izen orokorra duten zenbait

kontusail aztertu ditugu, 2001etik 2003ra bitarteko ekitaldietan izandako edukia egiaztatuz:

114002 11300 2269 612700 .- "Beste gastu batzuk"

114002 11300 2250 612700 .- "Kontribuzioak"

114002 11300 2250 612700 .- "Gainbalioak"

114002 11300 2020 612700 .- "Higiezinak errentan hartzea"

Horren ondorioz, antzeman dugu ez dela erregratu gasturik ordezkariaren etxebizitza errentan hartzeak edo lojamenduak eragindako gasturik, eta ordezkariaren inguruko zenbait gastu identifikatu ditugu, adibidez, higiezinaren eskriturak egitea, inbertsioen atalean sartu duguna, elektrizitate horniduraren zenbateko txiki batzuk (209,79 euro) eta auzokoen elkarrearen gastuak, 2004ko apirilaren 30era bitarte 13.054 euro egin dutenak, baina zenbateko horretan sarturik daude 1.129,3 euro 2002 eta 2.941 euro 2003an, higiezinaren elementu komunetan egindako obren derramei dagozkie-nak.

Logikoa denez, badira beste zenbait gastu ere, uraren hornidura, higiezinaren aseguruaren poliza globaleko kuota zatia, etab., banakatu ezin ditugunak, baina horien zenbatekoak, ez-materiala baita, ez ditu aldatzen orain arte azaldutako ondorioak.

Auditore Francisco José Etayo Salazar jauna izan da lan honen arduraduna, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 15ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Eranskina: Ordezkaritzaren aurrekontu kontusailen exekuzioa 2001etik 2004ko apirilera arte

Urtea	Eko	Azalpena	Hasierako aurrek.	Aldaketak	Behin betiko aurrek.	Aitorturiko bete-beharrak	Ordaindutako bete-beharrak
2001	2269	Funtzionamendu gastuak	0,00	105.177,12	105.177,12	14.561,83	10.001,56
2002	2269	Funtzionamendu gastuak	105.177,00	-65.741,00	39.436,00	19.545,69	18.667,72
2003	2269	Funtzionamendu gastuak	39.436,00	0,00	39.436,00	22.135,12	19.653,44
		Funtzionamendua, guztira	144.613,00	39.436,12	184.049,12	56.242,64	48.322,72
2001	6059	Inbertsio gastuak	0,00	51.086,03	51.086,03	6.009,64	6.009,64
2002	6059	Inbertsio gastuak	32.014,00	0,00	32.014,00	0,00	0,00
2003	6059	Inbertsio gastuak	32.014,00	-3.495,14	28.518,86	0,00	0,00
		Kapitala, guztira	64.028,00	47.590,89	111.618,89	6.009,64	6.009,64
2004	1000	Goi karguen oinarrizko ordainsariak	62.411,00	489,50	62.900,50	14.049,91	14.049,91
2004	1100	Behin-behineko langileen soldatak	23.524,00	184,50	23.708,50	6.773,68	6.773,68
2004	1600	Gizarte Segurantza	7.477,00	58,64	7.535,64	3.795,06	2.519,39
2004	2169	Kon., konts., maki. eta tresnak	4.500,00	0,00	4.500,00	0,00	0,00
2004	2200	Bulegeoko mat. eta informatikoa, inbentariaezina	3.600,00	0,00	3.600,00	941,60	0,00
2004	2202	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	3.000,00	0,00	3.000,00	51,00	0,00
2004	2220	Komunikazioak	6.000,00	0,00	6.000,00	0,00	0,00
2004	2269	Beste zenbait gastu	31.700,00	0,00	31.700,00	3.088,05	2.098,09
2004	2276	Azterlanak eta lan teknikoak	12.000,00	0,00	12.000,00	0,00	0,00
2004	2300	Dietak, garraioa eta bidaia-gastuak	40.000,00	0,00	40.000,00	5.738,74	5.627,54
		150 Programa (funtzion.), guztira	194.212,00	732,64	194.944,64	34.438,04	31.068,61
		2001etik 2004ko apirila, guztira	402.853,00	87.759,65	490.612,65	96.690,32	85.400,97

2001etik 2003ra langileen kontusailek izandako betetzea ez da aipatu, aurrekontuko proiektuari atxikitako langile guztien gastua jasotzen baitute, ez soilik ordezkarietakoena. Gastua IV.2 atalean dago zehazturik.

*2004ko apirilaren 30era arte.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urtebete 42,35 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	---